



Palestina'n pakerik bai ote ditekete?

Ari gara aurtengo Astesantutik ateratzen. Gu, emen, aski era paketsuan, Jainkoari eskerrak. Ez ain era paketsuan, Astesantuz ospatzen ditugun misterioak -direla ia bi milla urte- gertatu ziren lurraldean: Palestina naigabetuan.

Gizakumeon artera pakea ekartzearren Jainkoa il zan lurralde gaixo artan zez ote da beñere pake iraunkorrik sortuko?

Bazirudin, oraingoan baietz, oraingoan Lur Santu artara pakea ekarri zitekean bidetik sartuak gihela, pake ori eratzeo alkarriketan asiak bait ziren juduak eta arabitarrek.

Ez zen gutxi alkarriketan asi izate ori; orain arte juduak eta arabitarrek ez bait dire izen alkarri begiratzeko gauza. Askoz gutxiago alkarri agur egiteko.

Direla illabete batzuk ordea alkarri begiratu eta alkarri agur egin ez ezh, alkarri eskua eman ere egin zioten Arafat arabitarrek eta Isaak Rabin judutarrek. Eta asi ziran alkarriketan lagun zarren antzera.

Orain dala bi-irurenbat urte, ez zuan inork ori gertatu zitekeanik pentsatu ere egingo.

Simon Peres, Israel'ko Jaurilarizan atzerri-arazoetako ministroak du ori gertatu izenaren merezimendu guztia.

Jatorriz portugaldarra da gizon ori. Ortik, bere abizena: Peres. Orain dala laureunenbat urte. Portugal'etik, eta Espaini'tik, juduak

erbesteratuak izen zirenean, Poloni'ra aldendu ziren Simon Peres'en arbasoak. Sendi ortatik jaioa dugu bera.

Pakerako asiak ziran saioetan ere esku aundia izen du Clinton Laterri Alkartuetako Lendakariak. Merezi ditu, orregatik, borondate oneko jendeen esker onak. Baita pakegintza ortara bere aalmen guztiz sarturik dugun UNO erakundeak ere.

Baña, etorri zen Ebron'go erailketa. Judutar burubero batek Mez-kita, edo maometarren otoizleku batera sartu, ta erarik koldarreanean tiroka asi zen an otoitzean bildurik zeuden arabitarren aurka. Odolez gorritu- rik eta gorputz illez beterik utzi zun Mezkitaren lurra.

Ebron, uri santua da bai juduen-tzat eta bai arabitarrentzat. An bizitu bait zen Abraan, eta an bait dago obiraturik.

Bi seme izen zitun Abraan'ek: aurrenekoa, Ismael, Agar bere neska- mearengandik. Bigarrena, Isaak, Sara bere emazteagandik. Ismael'engandik sortuak dire arabitarrek; Isaak'engandik berriz judutarrek. Senide- arteko guda da, beraz, Palestina'n darabilkiten: guda-motarik okerrera.

Bien sort-iturria Abraan delarik, bai juduek bai arabitarrek Aitatzat daukate Abraan; eta lur berezik sagaratutzat, Aita Abraan'en illobia dagoen lurra, eta Uri Santutzat lur sagaratu ura bere altzoan dau-

kan Ebron uria.

Ori-dela-ta izen zitun alako ondorio txarrak Ebron'go Uri Santuan gertatutako eraiketa zikin arrek.

Bertan-bera ausi bait zizkigun pakerako alkarriketa guztiak, eta une berean sortu, atzera berriz, juduen eta arabitarren arteko gorroto gorria.

Joan dire ordea egunak bata bestearen atzetik. Jarraitu dute UNO'k, Clinton'ek, eta baita Simon Peres'ek ere, beren lan ederrean, eta —denborak zauri danak goxatzen bait ditu—, moteldu da tiroketa aren ondorioz birpiztutako gorrotoen galda ere; eta ikusi aal izen dute, bai juduek eta bai arabitarrek, alkar iltzen jarraitetik ez zaiela, ez aiei eta ez auei, negarra ta oñazea eta eriotza ta gaitza besterik etorriko: gaitza, gaitzaren gainean!

Egia bait da, alkarrekin bizitzea beste irten biderik ez dutela! Zalla, etsaizentzat, alkarrekin bizitzen ikastea; bai noski! Baña ikasi dezake; eta ikasi oi dute. Etsaiak dire zakurra ta katua, baña beste irten-biderik ez dutenean ikasten dute alkarrekin pakean bizitzen. Nork ez ditu ikusi, gure antziñako baserri zarretako sukalde maitagarri aietan, sutondoan etziñik zakurra lo, eta zakurraren gañean etzinda, katua ere lo... biak pake santu gozoan?

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Kantu ta goratzarre bizitzari

«Ikusi zuen, eta sinitsi» (Jn.20,1-9)

GERTAERA gogorak aurreko egunetan bizi izan ditugunak. Maitea genuenaren eriotzeak pasada aundia ematen du.

Ez da erreza itz leorrez eriotza zer den erratea. Are zailagoa, berriz, iltzeko indarkeria erabili baldin bada. Nork ukatu lezake gurutzean iltzea ez dela indarkeria erabiltzea?

Ulergaitza izan arren gurutzeko eriotza arek badu sari ederrik eta gozorik: PIZTUERA.

Piztuera expikatzeko ere ez da erreza. Eziñezkoa. Sinismena bear.

Piztuera garaitu ditu eriotza eta pekatua. Gizaki berria, argiz jantzia, espirituz bete... da piztu dena. Aitaren saria jaso duena, salbatua izan dena.

Ez zaigu bidezko Jesus-en eriotzaren gertaera soillean delditzea. Gure fedea eriotzaraino iritsiko balitz eta piztuaren misterioa aldatu, bi zatiko

Kristo egingo genuke. Piztuaren esperientziak bizitza erabat aldatzen du. Lenengo kristauei ere alaxe gertatu zitzaion. Ikuspuntu berria sortzen du piztu-erak.

Bizitzaren aldeko jarrera izatea eskatzen digu piztuera onartzeak eta sinisteak. Eta betiko bizitza irabazi digunari igandean alleluia kantatuko diogu.

Alleluia bi itzez osaturikoa da: «Hallelu» itzak «goretsi» erran nai du eta «Yah» itza, aldiz, Yahve-ren laburpena besterik ez da. Beraz, Alleluia «goratzarre Yahve»ri erran nai du.

Bizitzak ezer ez edo oso gutxi balio duen garaie-tan gu bizitza kantatzera konbidatuak gera.

Ekin bizitza berriari eta eskañi guztiei bizitzako gogoa eta alaitasuna; eta, kanta alleluia.

Artzalluz'tar Joxemari

Uterga'ko Aita Kamilo aureskularia

Eun da bi urte bete ditu Uterga'ko Aita Kamilo kaputxinoak. Errenderi'ko lekaidetxean bizi da. Atezaina bezala lana egiten du. Osasunak ongi laguntzen dio. Orain dela bi urte eun urte bete zituenean, erriaren aurrean Aureskua dantzatu zuen ariñasko. Jaiotzez Antonio Arraiza Kuello izenarekin bataiatua dago.

Ain bertan eun da bi urteko kaputxino nafarra bizirik zegoela jakin ondotik bi berri ezagutzeko asmoa sortu zitzaion: bat, Uterga'ko errixka ortan, bere aurtzaroan euskeraz egiten entzun ote zuen, eta bi, nolakoa zen Ibero'ko Aita Ebangelista napar abertzale sutsua. Bi galderentzat erantzun arrigarriak eman zizkidan.

Uterga'ko errixkak eun eta berrogeitamar biztanle ditu. Iltzarbe delako ibarran dago, Gares'tik (Puente la Reina) Iruña'ra dijoan bide ondoan, erregebidetik bi kilometrorra. Karrika zabala ederra ba du Uterga erriak, baita enparantza galanta ere, eliza berriz sendoa 16'garren gizaldikoa. Euskal literatura alorrean izen aundia du Uterga'k. Ementxen erretore bezala zegola, Beriain'go Juanek bi liburu utzi zituen euskaraz idatziak; bat mezari buruz (1621), bestea kristauikasbidea (1626). Orduan Uterga'n elizan euskaraz egiten zuten.

Bonaparte'k 1863'garren urtean egindako mapan Uterga'n euskaraz egiten zutela agertzen du. Ara zer dion Aita Uterga'k: «1825 garren urtean jaiotako nere amona ondo ezagutu nuen eta etzekin euskaraz, bere aita Legarda'koa zen, Joakin Jauregi Iriberritegi ta arek ba zekin».

Aita Kamilo'ren aurtzaroan errian etzuten euskaraz egiten. Galdera bat egin dezakegu lasai asko: Bonaparte'n mapan ematen zaizkigun berriak zuzenak ote dire?

Aita Ibero abertzale sutsua ongi ezagutu zuen Lizarra'n, 1903-1905 urtetan. Orduan Aita Uterga Lizarra'n kaputxinoen lekaidetxean sartu zen. Zuzendari bezala Aita Ibero zegoen. Aita Wenzeslao Lakuntzak euskaraz erakasten zien. Eresi irakaslea Alfonso Ugarte organista zeukaten.



P. Uterga.

Iruxo'tar mutil batek auresku egiten erakatsi zion.

Nortasun aundiko gizona omen zen Aita Ibero eta ongi oroitzen da nola maia bedeinkatzean beti otoitza amaitzen zuen esanaz: «Gora Euskadi ta Gora Sabino». Garai artako ikaslea Fortunato Agirre da, geroago Lizarrako alkate abertzalea izana, anaiarteko gudan eraildua. Ori dena Aita Ibero'n azia da. Aita Ibero'n ikasleak, inguruetako errietara ateraldiak egiten zituztenean, bertako apez karlista amorratuak, oiek denak entzunez, zer esango ote zuten? Orrenbeste aldiz madarikatutako Aita Ibero, 1906'garren urtean Hija'era (Teruel) bidali zuten nagusiak. 1909'garren urtean, Euskalerriko miñez il zen an. Barrera lertu zitzaion. Nun ibilli ote den Aita Uterga jakin naiko dugu. Ogeitabost urtekin apaiztu zen. Ameriketara bidali zuten. An 52 urte egun ditu, Argentina ta Chile'n. Askotan euskaldunen aurrei auresku dantzatzen erakatsi zien. Errenteri'n 24 urte darrazki bizitzen. Urtero udaran Uterga'ra, jaiotetxera dijoa ta ao zabalik dauka den denak aintziñako gauzak kontari. Errian euskal izenak biltzea maite du. Ara bi auek azkenak: Zakarro, el esten.

Latxaga

Apirilla

Martxoa goan zitzaikun eta Apirilean sartu gara baina oraindik ere Martxoari dagozkion erranirak gelditu dire eta hoiak ere merezi lukete aipatzea.

Martxoko ondar egun hoietan holako eguraldi eta giro ederra ikusirik, beiak erran omen zuen:

- Am, Amabirjiñe. Martxoko beia larrean aseko. Idiak hori aditurik beiteiko zokotik:

- Muu! Nik Apirilei beldur ez ote duen inen zizkora eta elur.

Beia eta idiaren arteko solasak badire eta denak berdintsu. Antxue eta beiazen artean ere badute zer erran. Antxuek beia: Amabirjiñe Martxoko orduen mendira lo itera igoko.

Beiak: «San Isidro noiz da? Orduan aski goiz da». Aurten Erramu eguna Martxoan izan dugu eta holaxe sar dezakegu erraniruari dagokiona: «Kukua Erramu egunean kuku, San Pedro egunean muku».

Orain apirilean sarturik, bada zer edo zer erran beharra. «Apirile biribile zerrie urdendeian goseak hille, zerrizaña zokoan arto puske kolkoon». (Batzangoia) «Apirille

biribile zerria urdendeian hille. Ez, eztago hille puztena badabilen». (Basaburua) Baztanen ere eskualde batetik bertzera badago zerbait aldakuntza. Apirilean aintzinat yarraikiz, San Markos dugu eta hunek ere badu zerbait errateko.

«San Markos astea artoa ereiteko astea» Hunek badauka erantzuna: «Aitzinekoa baño ondokoa hobe».

Hemen bertze bat: «San Mark, azia balin bauk emak». Apirile hilebete ederra da eta olerkariak ere aipatzen dute, kantu eta bertso zaharretan ere Apirile aipatzean da. Entzun dezagun Xalbador zenaren bertso bat «Primadera»ri ezari zizkion bertsoetan agertzen dena:

«Apirilean goiz eder batez goizik bainintzan atzarri, eta ohea uzteko nagiz nindagoala pentsa-lari, Etx'aintzineko sagar arbolan xori bat zagon kantari: gau artan zerbait gertatu zela, beha nezon kanpoari, negu zitalak lekua utzi ziola primaderari».

M. Izeta